

¿BAGERA, EDO EZ?



(VICTORIANO IRAOLA KOŠKERO BIKAÑARI)

Izkuntz garbiyan esan dituzu
dozena erdicho bat egi
zimur asirik penaturikan
bai makiña bat arpegi.
Koškikan gabe emen bizitzen
eziñ litekela segi,
koškak dijuaz, konturatzeko
ez dira biar lau begi.
Malkuak gora, malkuak bera,
malkuak alde guztitik
isurtzen negon ikusirikan
gelditzen ez zala koškik.
Egun batian eta bestian
gaşuak lurperaturik,
bañan kontuban erori naiz ta
diyot—ez izan bildurrik—
Bada, gazta bat Idiazabal
Ataun edo Gaintzako,
egiten baño koşkas betetzen
errezagua dalako.
Artu ezkeru chardiñ, lanpernak,
upel inguruetako,
euskal-izkeran gauden artian
koşkarik ez da faltako.

MARZELINO SOROA.

